



Gauak
zuri
Usurbilen

ITXARO
BORDA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

ITXARO BORDA

Gauak zuri Usurbilen

Duela berrehun urte sortu zen
Fedor Dostoievski, San Petersburgon.

Orduan bezala gaur ere.

Eta eskerrak usurbildarrei.

(1821-2021)

Santua ez naizen arren, Santuenea auzoko egoitza batean eman zidaten aterpe hiru asterentzat. Xendra zuzena zen alabaina Baionako San Izpiritutik Santuenera. Apartamentu munttoa neukan nire sator-zuloaren aldean, zabala eta argitsua. Oheak egin nituen eta berehala etxeko sentitu nintzen. Egoerari erraz moldatzen ziren ameslarietatik nintzela banekien, egokitzen zitzaidana onartzen ikasia nuelako. Kontingentzia materialei ez nien kasu askorik egiten, nahiz eta batzuetan iruditzen zitzaidan bizitza errearen ipularretatik ibili nintzela, egiazko eta baliozko zereginetatik urrun. Baina hor, gaurkotasunean erabat errotua, afaria adelatzen hasi nintzen.

Usurbilen nintzen. Ikerketa lan baterako hautatu ninduten. Euskal Kulturaren alorra beraien ospeaz aberastu zuten poeta, musikari, tindatzaile eta, erants nezakeen xaloki, baratzezainei buruzko txosten bat osatzeko betekizuna neukan, jana, loa eta Santuenera ezker-paretan palan jolasteko ahalmenaren truke. Egitekoa bazen, euskal munduko izen-abizen famatuak oro hemen bizi (izan) zirelako, metro karratu eskasetan. Aste bete lehenago, bilaketa zenbait egin nituen nire azter-bidea azpazteko. Askiko nuen guztia paperrean etzatea.

Lehen lau egunak lasai lerratu zitzaizkidan. Hirian zehar ibilaldi luzeak egiten nituen, jendeak agurtuz kaixo eta epa-ka, argazkiak hartuz. Auzoetara ere lehiatzen nintzen, ondoko hiri eta herrietara halaber, ekarri zidaten bizikletarekin. Ene testuaren plana orrazten ari nintzen, zatiak puzzle baten gisa bata bestearen hagin arteketan kokatzen zireneraino. Ez nintzen idazle-idazlea, baina free lance kutsuko kazetaria, informazioak formalizatzen nituen batasun, egitura eta erakunde ezberdinentzat.

Buruan, alta, banuen literaturara makurtzeko nahikundea: ideiak eta sentsazio parrastak neuzkan nire baitan dantzari. Telebistan ikusten nituen autore horien urratsetatik lerratzeko xedea nuen, finki pentsatuz eta adierazpen espiritualak plazaratuz. Ametsetan galtzen nintzen egon gelako sofan luzatzen nintzenean euskal idazleren baten liburua eskuan: irakurleekiko bilkuretara gonbidatuko ninduten, mahai-inguruetara, sari banaketa saioetara edo nazioarteko literatura jardunaldietara. Etorkizun bikaina neukala nioen unean, loak eramaten ninduen usteak uspel ziren erresumetan barna.

Arazorik ez neukan beraz, aitor dut hargatik hozkailuaren bortan nekusan Usurbileko atez ateko hondarinen bilketa egitarauak ninduela gehienbat kezkatzen. Ez nekien sekula zer non sartu ... organikoarena argi zitzaidan eta errefusaren naturaz aise jabetzen nintzen. Errefusa bakarra funtsean gizakia zela ziruditan, Zubietako erraustegiaren ereduko mila planta eraikirik ere, hauts eta errauts, birzikla ezina zelako. Plastikoaren eromenaz ohartzen nintzen goizaldeetako galderak harilkatzean. Plastiko gutxiago erabiltzea zin egiten nion nire buruari, baina ezer ez nintzen, eta gogoetaren azken katebegian, ondorioztatzen nuen erabaki potolo horren hartzea multinazionalei zegokiela. Egikera, menturaz, aldatuko nuen berehala, etxe ondoan, erraustegi edo zabortegi bat altxatuko zidatela ikasiko banu!

Arrangura filosofikoek ez ninduten sobera tratatzen. Bake sailduaz gozatzen nuen idatz saioen artean. Iparraldekoa izanagatik, hegoaldean hegoaldeko sentitzen nintzen. Hunkigarri zitzaidan

euskararen ordu oroko presentzia. Politikoki ere, hegi zorrotzak leunduz joan ziren, hereneguneko eusko gudarien diskurtso militaristen zurruntzea ekarriz. Eskertzekoa zen. Orokorrean samurtasun eta ez-titasun gehiagorekin mintzo gintzaion elkarri, trintxeraren alde berekoak ez izan arren. Bagenuen asko errateko eta segur aski, are iritzi kontrajarri gehiago partekatzeke. Gure herria, sekula ezagutu ez zituen garaien atarian zegoen, dena genuen ikasteko, bereziki gauzak ez zirela mehatxuz, tiroz edo zartagailuz konpontzen.

Etxetik ateratzen nintzen arrats apaletan. Eguzkia sartzen zenean, bihotza banbaka hasten zitzaidan. Ongi nintzen ilunbearen atzamarretan: maite nuen hiria, ezezagunekin gurutzatzea, ezezaguna izatea. Bakarrik nebilen arren, ez nuen bakartasunaren ziztarik sentitzen. Usurbilen halatan, batean Txokoaldera nindoan, bestean Zubietara edo Kalezarreko errekan gora, eliza monumentalaren arkupeetan tapalakatzea ere gertatzen zitzaidala, basa-piztia aitzinetik pasatuko zitzaiola espero zuen ehiztari egonkor baten maneran.

Santueneko etxeko atean kausitzen nintzenean, beheko apartamentuko andere ezinduekin hitz egiteko astia hartzen nuen. Orduak erdi lo iragaten zituen, zurrungaz, bizitzaren zama gorputzean lehergarri. Iratzartzen zen ene giltzen hotsa entzutean:

-Ba zoaz ordun?

-Bai, itzuli baten egitera noa.

-Ondo ibili eta eze falta balinbozo kaso ein...

Eta orduan, noizean behin, eki pean ibiliaren bortxaz, galtzen nintzen. Oihan trinkoak baziren, ibai ertz sasitsuak, lurrezko xendak, seinalerik ez. Eratorriak halako burtzoro bat eragiten zidan. Maite nuen ez jakitea, galdatu beharra... Usurbileko ene lehen arrastirian, kirol zapatak oinetan, Erriberatik laster egin nuen Txokoalderaino. Hortik nora jo? Dudak nituen, baina beti aurkitzen nuen argituko ninduen norbait. Gogo onez gainera, hitzen lihoa edonondik irunez:

-Frantsesa zea ez?

-Bai, beno, Txirritak kantatzen zituen prantses euskaldun horietatik naiz...

-Barkatu, iparraldekoa esan nai nun.

-Trankil, ez da bekatu...

Eta kide etsitu hark, Xumeta jatetxearen parean, errepidearen erdian, Txokoaldetik Urdaigara nola pasatzen ahal nintzen esplikatzeko zidan, bideko patarrak aipatzean nirekin batera sufrituz eta irri handia askatuz. Gustatzen zitzaidan jendeekiko lotura arin hori, kolibria hegala hunkimen furtiboa bailitzan.

Ikusten nuenaz oroitzen saiatzen nintzen. Memoria ariketa malguak. Igande batez, demagun, Santueneko zubia zeharkatu eta Hernanirako autobus geltokiaren ttattolaren inguruetako belardiko jargia batean, musika kaskoan entzuten zuen mutiko bat zehaztu nuen. Errealitatetik at zirudien, konkor,

bere baitara bildua, eskuan zeukan tubo hertsiaz liburu meharraren gainean hedatuak zituen kokaina lerroak sudurreratzen. Bidetik, sudur-zulo zurrupa ozenak aditzen nituen. Pasatu nintzen, alegia deus ez, ni ere emigrante auzoko horretako txuriano, kaseros edo Saharako desertuak eskas lituzkeen bizidun arrunta banintz bezala. Bakarretan, pilota plazaren inguruan, bela koloretsuz jantzi emazteak gurutzatzean, nire kaixo sotalari salam aleykum ihardesten aditzea maite nuen, Usurbileko munduaren bihotza baitzen Santuenea. Ez zen dena arrosa bistan dena : elaire batek salatu zidan, txikia zenean, Santueneko ikasleekin ez zirela sobera nahasten, eta berak usainetik beretik ezagutzen zituela atzerrietatik etorri haur horiek.

Asteazkena zen eta zabor-papperren zaku urdina jaitsi nuen goizeko zazpitan. Ez nuen tronpatzeko gogorik. Egun luzea zatekeen niretzat, lana, ibilaldia eta gaua. Ongi nintzela errepikatzen nuen, atseginez hantu mantra baten haritik.

LEHEN GAUA

Ibon RG-ren kontzertuaren ondotik hasi zen guztia. Artista bilbotarrak atera berri zuen Artzeren idazkiekiko album berezia aurkezteko zuzeneko emanaldiak eskaintzen zituen, Enrike Hurtado musikari lagunarekin. Zumetak hornitu Elizaldeko frontoiaren gibelesko harrizko tauladan plantatu ziren, beren hari, tresna eta azantza egiteko material izugarriekin. Ibonen marrumek oihar egiten zuten gauaren atarian eta Enrikeren txalaparta soinu elektro-akustikoak suge lumadunen infra-mundutik zetozela bazirudien. Maite nuen musika mota hori, maite nituen Ibonen ahots jokoak eta Enrikeren egur kolpeen erritmoak egurraren gainean, maite nituen azkenik Isturitzetik Tolosan Barru poema bildumako olerkiak, salbuespenik gabe.

Gogoan neukan non erosi nuen liburua. Katakonben garaietara eramaten ninduen oroitzapenak. Pannecau karrikako Zabal liburutegian zen, ziur nago horretaz, garai haietan besterik ez zegoelako Baionan. Euskarazko liburuak eskuratzeko Otsabidetik autoz etorri behar nuen, ordu beteko bidea, pentsa, eta Baiona Ttipiko giro tepoan urtu, beldurgarria zena orduan. Hor biltzen ziren hegoaldeko errefuxiatuak eta iparraldean beraien buruak euskaldun zeuzkatenak: euskaldun izatea erabaki politiko baten ondorioa baitzen, konbertsio ideologiko batena, jatorriko familiaren eta herriaren alde bizitza emateko prest zegoen jende-multzo deliberatu baten arteko haustura ezinbestekoa.

Txalapataren kolpe bakoitzak nire iraganaren horma porroskatzen zuen, adreiluz adreilu, urtez urte, irudiz irudi. Buru barneko pantailan, Ibonen urruma elkorrek iratzarrarazi hitzak eta mehatxuak gorpuzten ikusten nituen: auzo hura zikina zen, pixa eta garagardo urrina zerion, izaki bitxiak ba zebiltzan iluna jaitsi orduko, norberaren frakaso zedarrirituz. Ez-mundu horretan kokatzen zen Zabal liburutegia eta euskaraz ilustratu nahi zuen eskaintza aberatsa. Barnean, Maite Idirin aurkitzen genuen, edo Jokin Apalategi, aholkuak emateko beti gertu. Ez dakit nondik neukan dirua, baina Artzeren bilduma karioa niretu nuen, Otsabideko selauruko nire lo-gela hotzean, lore zitala bailitzan, elerik ele hostokatzeko.

Izerdi zebilen Enrike, mugimendu barnekoi batean kulunka, mistizismoaren mugetan. Mikel Laboa plaza sakralizatzea lortzen zuen Ibonen boz sakonak. Une batez negargura neukan. Musikak eta ahotsak isuri organikoa osatzen zuten, zainak emokatzen zituzten, emozio ezberdinak elikatzen, eta azkenean zaugarri uzten ninduten. Zeru beltzera so egin nuen, salbatuko ninduen izar kliskalariaren bila. Debaldetan. Ortzea beltz beltza zen, esperantzarik ez alde horretatik. Haize arin batek freskatu zituen bazterrak. Urdin koloreko laino pisuak metatzen ziren itsaso aldetik.

Artistak agurtu ondoren Tangerrera itzuliko nintzela erabaki nuen. Herritar batzuek hala izendatzen zuten Santuenea, bertan ohatzen ziren gaztelar, galiziar eta magrebtar langile ohien omenez. Edo burlaz. Nork zekien. Udako ordu luzeetan, hango jargietan kasik etzanak ikusten nituen erretiratu

saldoak, zigarroak edo garagardoak eskuetan, solasean, goraki, mende ahituetako izerdi perla distiratsuak gatibatzen saiatzen. Behargin akituak. Higatuak.

Hola murmuratuz agurtzen ninduten, beraien arteko atzerritar bat gehiago banintz bezala. Nintzena. Ez nintzena. Apartamentuan pasatu nuen lehen arratsaldean, Eroskira joateko atea ireki nuen momentuan, aurreko bizilagunaren burua ilki zitzaidan borta artetik:

- ¿Eres la nueva vecina?

-Si... soy yo...

-Bienvenida!

-... eskerrik asko... gracias.

- Bien, muy bien, nos veremos.

Amatxi gisako anderearen barrea neukan buruan, eta orduan nuen ikusi. Begiak borobil ireki nituen. Neska hura! Neska hura... Zertan zebilen ilunean malkotan? Zelako penak larranzten zion bihotz aldea? Nola posible zen hain triste izatea artista bizkaitarrek eman ziguten kontzertu bikainaren ondotik? Hurbilduko nintzaion? Zertara zetorren ene baitako humanitate sufrituarekiko abegikortasun bitxi hau? Normalean, jendetasunak hazten ahal zituen arriskurik gabeko bakartasuna nahiago nuen... emozionatu eta gero etxera, ETBko Nahieran atalean, pilota partida bat edo Goenkale zaharren errepikak irensteko. Zein indar ezkutuk eraman ninduen hipaka lehertzen zihoan izaki harengana? Ez dut oraino ere ulertzen.

Pentsamendu hutsalen ildoan abandonatu nuen. Hiriko argi iturri baten azpian zegoen. Begi-xirripak idortzen zituen, astiro, mokanes zuriaz. Emakume xarmanta zen, begitartea zorrotz eta larrua zuri, ile beltz-beltzak sorbaldan behera barreiatzen zitzaizkion, bularralde oparoa zuen, sabel alde laua, miresgarria, azpiak aldiz gogor eta ipurdi mazelak borobil. Ene irudimenak abiadura handian, urrunean zehazten zuen kide xifituaren irudi desiragarria oparitzen zidan.

Sentitu nuen ametsaren zurrunbiloan metatu itxindiak berriz pizten zihoazkidala. Neskarengana behar nuen, derrigor, absolutuki. Ez zen imajinazioaren joko soila, egia zen, benetako itxura, argi zirrista, ur eta su, ausartu nintzen, aldamenean plantatu nintzaion:

-Zer duzu negarrez? Mundua ez da gaur eroriko... Zerbait egin dezaket zure min handi horren jabaltzeko?

-Mirakulu egilea zara ala?

-Ez, baina laguntza adiskidekorra proposatzen dizut.

Hozki begiratu zidan. Nondik nentorkion igartzen entseatzen ari zen. Ona ala txarra nintzen erabaki gogo zuen, hitza nirekin trukatzeko jarraitu aitzin. Zumetaren zeramikaren maldan, musikariak materialak biltzen segitzen nituen eta aldi berean neskaren bekokia miratzen nuen. Isiltasun dorpeak gatibatu gintuen. Urruntzeko jaidurari uko egin nion. Neskarena misterioa zen, zulatzea merezi zuena. Atrebituko al nintzen?

-Nahi baduzu norabait joan gaitzke eta zure dolorearen funtsa kontatuko didazu...

-Gogorik ez dut ostatu zoko batean ehorzteko... Eta ez dut deus errateko, bereziki ezezagun bati.

Desengainuaren tua irentsi nuen. Baina tematu eta bide puska bat egin genezakeela xuxurlatu nion. Bale arruntaz ihardetsi zidan. Urratsak nire urratsetan finkatu zituen, isilik. Elizaldea eta Kalezar arteko baratze publikora eramatea pentsatu nuen, han lasaiago egongo ginelako. Udako gau epela zen, argizagia zeruan gora, eta ninikak ilunari ohitu arau, ni aurrean eta neska dohakabea gibelean aitzinatzen ginen. Huntz baten ulua hautematen nuen, zakur zaunka dolorosoa eta eskaileretatik jaistean, hiriaren burrunba elkorra: nehork ez zuen etxeratzeko gogorik.

Aranerrekaren freskurak harrapatu ninduen. Leku hertsia hartako bizidun bakarrak ginen. Zelatari egon ginen bulta batez. Mutu. Emakumearen edertasunak zoratzen ninduen, egiazki. Beldurraren eta miresmenaren artean nebilen, hauta ezin. Errekastoaren hegietatik abiatu ginen arraposki, ni gidari. Neska nigan fidatzen zitekeen. Besoak gurutzean zeramatzan, gorputza desorekatuz oin bat bestearen aurrean jartzen zuen aldi oroz. Behako eskelez obserbatzen nuen: misterioa are lodiagoa bihurtzen ari zitzaidan.

Zaratak xendra gaineko sasian... bikote bat bazen, laztan eta musuka. Intziri sutsuak hegaldatzen ziren. Bero-bero zeudelako seinale. Lau zango atera zitzaizkigun laparren artetik. Ausart eta ahalkerik gabe. Harritu ziren gure presentziaz ohartu zirenean. Trakets jantzi eta lasterrari eman zitzaizkienean haatik, laido nasaia libratu zituzten.

-Burutik gaizki dagoen jendea bada! Urde zikinak! Ez duzue beste egitekorik?

-Suge gorri madarikuak!

Alde egin zuten. Nirekin zebilen emazteak irri karkara bat askatu zuen. Lehen aldia zen algaraz aditzen nuela. Erraiak uhertu zitzaizkidan ezpainak mugitu zituenean:

-Hitz emaidazu ez zarela nitaz inoiz maiteminduko...

-Horrelakorik?

-Bestela hemen bertan elkar utzi beharko dugu. Hitz emaidazu...

-Galdera bitxia da baina bai, zin dagizut.

Puntapaxera heldu ginen. Zanpa-zanpa zihoan emaztea. Kalezar auzoko bidea trabesatu zuen, zubiaren azpitik zihoan uraren uherraz axolatu gabe. Gauaren argitasunean, eskuinetara, etxebizitza handiak eraikitzen zituzten. Grua gorakoen maldako baserri erraldoiaren azken egunak ote ziren? Hiru solairukoa zen, balkoi eta zureria gorriekiko murru sendoekin, leihoak marmol pikatuz inguratuak zituen, teilatu eta hegatsak lehertzear, bere egunak, segur aski, kontatuak zirela. Usurbildar batek erran zidan, ahotsa apalduz, haran horretan hara herrestari emendatzen ari zela sei mila biztanleko hiria:

-Hemendik bi urtera bisitaz etorriko zarenean, zeharo urbanizatuak kausituko dituzu bazter hauek oro.

-Baia?

Nekazari lurren destinoa zen alaina. Patrireanean bazkaldu nintzen batez, A8 autopista zulatzen Donostia eta Usurbil arteko hainbat baserri suntsitu zituztela azaldu zidan lagun hark berak. Udarregi bertsolariaren Artikulu-Txikia adibidez. Bai eta udaletxeko webgunean argazkitan ageri zen Benta Zikin izeneko ostatu-jatetxe famatua: toki alai zen, jendetsua eta batzuk oraindik bertako alabak gogoratzen zituzten. Hor ziren gorpuztuak, angula, tabako eta Andoainetik Lasarten gaindi Oriora ardo kontrabandoa egiten zuten itzalkiak, beren balentriak kontatzen, Pello Errota, Oloki eta Udarregi bera euskara klaruan eta desapiyo biziyan bertsotan, langile ibiltariak, etxea galtzea arriskatzen zuten apustu egileak eta neska gazteen maitaleak. Igandeetan, elizatik urrun, trikitixa soinuek sasien arteko bekatorosak animatzen zituzten, bekatua ere batzuetan plazerra izan zitekeelako gain haietan...

-Zer dira istorio horiek? Uste duzu geografia kurtsoak hartzeko naizela?

-Uste nuen interesatuko zintuela.

-Ba, ez.

Ene gida-zurubitik jaitsi nintzen, gaitzitua. Iharduki behar nuen. Ez nintzen kikilduko. Banuen hainbat eta hainbat behaztopa jasanik bizitzan zehar eta beti lortu nuen ateka gaitzak gaintzea. Ez ninduen emazte horren joera mindulinak izutuko:

-Konta iezadazu zergatik ari zinen negarrez kontzertutik landa...

-Istorio luzea da, abar anitzetakoa. Min egiten duena. Min egiten didana. Bihotzean, sabelean, gorputz osoan.

-Aski duzu hastea, entzuteko nago.

Barre zilarrak begitartea marratu zion, tristuraren sakonetik jazarririko alaitasun uhin batek soa argitzen ziola. Baketu nintzen. Aranerrekako bidean ginen. Bazterren berdetasuna indartzen zuen ilargiaren distirak. Ibai xumearen xuxurla zetorkigun, kahaka baten hegaldiaren firi-fararekin batera. Erbi sotilak lautada lasaia alegeratu zuen eta asto mantso bat hurbildu zitzaigun. Bere kuriositatea ase genuen, muturra alderik alde higitzen zuen bitartean. Aski zekiela deliberatu zuenean, urrundu zen larrean behera, belarriak zut-zutak eta buztana ezker-eskuin balantzaka.

-Astoa bezain abilik ez dago.

-Hara! Bestea!

-Hortxe, jargia bat, eseri gaitezen eta erradazu zer pasatzen zaizun.

Emaztearen matelen zurbilak gauaren beltzarekin kontrastatzen zuen. Ileak atzera eraman zituen, sabel hondoan desioaren zirara eragin zidan keinu batez. Ez nuen hitzik trenkatu. Hats hartze elkorra ozendu zen.

-Ez naiz uste duzuna. Egia da poz pixka bat ekarri didazula. On egin dit erreka horren hegitik isilik ibiltzeak. Eskertu beharko zaitut. Nadia naiz...

-Nadia... beraz.

-Amamak eman zidan izen hori. Baina amama hil zitzaigun herenegun. Pena hori daramat bihotzean. Petersburgotik ukan dut berria. Errauts eta hauts utzi nau. Eta ez naiz Errusiara joaten ahal, gure familia han ez delako ongi ikusia. Badakizu, afera politikoak...

-Politikak egoerak beti uhertzen ditu ...

-Amama bera, Stalinen denborako garbiketa sozio-kulturaletatik onik atera zen, sendia osoak kontzentrazio zelaietan gosez eta lanez lehertua bukatzen zuen artean. Judutarrak ziren... Salatuak izan omen zirenak. Parisera errefuxiatzera etorri zen amak kontatu zidan. Eta babuxka han gelditu zen bakarrik, elurretan altxatu urkia taulazko isba batean, baratzea lantzen eta poesiak idazten, publikatua izateko esperantzarik gabe. Azken hatsa eman zuen arte...

-Ze istorio tristea. Ulertzen ditut zure malkoak.

-Zer ulertzen duzu zuk?

Bihurtu zitzaidan, lepoa tiratuz arraiki ausikiko ninduen kobra zainart baten antzera. Urrats bat egin nuen atzera, ene burua gerizatzeko. Ez nuen nahi bertan utz nindezan gauaren hesteetan itotzen. Ibaiaren murmurioa baizik ez zen orduan aditzen.

-Barkatu. Ez nuen zakarra izan nahi. Uste dut lortu dudala.

-Segi ezazu... segur naiz zure istorioak atal franko dituela eta zure amama idazleaz zerbait gehiago azalduko didazula.

-Arrazoi duzu.

Negar uholde berri batean galdu zen Nadia. Ahurra sorbaldan pausatu nion. Sakelan nuen zapiarekin matelan behera zerizkion malkoak idortu nizkion. Esku lerdenez urrundu zuen nirea. Etsipenaren holtzak hautsi ziren. Ez nekien zer egin.

-Ez nuen amama ezagutu. Niretzat mito bat izan da. Amaren ahotik entzun ditut hainbat istorio... Kuraiosa zen, ohitua txikitatik isilik egoten, idazteko gero Petersburgo aldeko elurrak setiatzen zuen bere etxetxoan... biderik ere ez zegoen hara joateko, urkien artetik behar zen asmatu...

-Tarkovskiren filmetan bezala?

-Bai, pixka bat. Baina gure amamaren bizitzak ez zuen fikzioarekin lotura izpirik. Egunerokotasun larria zebilen airean, izua eta hitza harilkatzearen plazer txiki horiek.

-Barkatu... ez zintudan moztu nahi. Segi ezazu...

-Lasai... zuk ez didazu ezer kontatuko? Orain zure aldi...

Isiltasunaren zamak lehertu ninduen. Ez nuen askorik errateko. Amona biak gogoratzen nituen baiki, beltzez beztu, mantelet eta kapelet ikusgarriekin, hauste goizetan ezko-argiak pizten eta gure haur kopetetan labetik atera hautsarekin gurutzeak marrazten, Memento homo quid pulvis es et in pulverem reverteris marmarikatuz, sukalde zokoetako latinkia erabiliz.

-Amaren ama gozoa zela oroitzen naiz. Euskal bixkotxa egiten laguntzen nuen mahaiaren gainean jarririk, bizpahiru udaberri nituzkeela. Handik gutxira hil zen. Aitaren amaz aldiz beldur nintzen.

Begitarte latza zuen, goratik hartzen gintuen, agerikoa zen bere seme kuttunaren emaztearen haurrak ez zituela begiko. Goxotasunik eta musurik ez sekula: izurriak joak ginena? Bere alabaren baten etxera joan zen eta bisita egiten genionean, lotsak kateatzen gintuen anaia eta biok, ez genuen haren ondora hurbildu nahi! Ene haur ikara...

Hormatu nintzen. Nadia, harritua, so zegokidan. Haize karroinduak bideko arroiletan metatu hostoak inarrosi zituen. Amona larderiatsu haren izpiritua al zen?

-Hil zenean gurera ekarri zuten, ezkaratz aldeko logelan etzan eta anaiarekin haren ahur malgortuak irekitzen jostatzen ginen... kunderrak edo arrosarioak bihikatzen genizkion... ez genekien heriotza zer zen... ume mokoak ginen, lau urte genituen behar bada... punpa, jauzi eta dena kikizai, gurasoak erasiaz etorri arte.

Berriz ere mututasun zirrista bat jasan nuen. Holtzaren hegian kausitu nintzen, erortzear. Haurrek badakite, hitzik gabe, maitatuak ez direla. Banekien.

-Eta horrekin harilkatu dut ene bizia. Maitasun inkondizionalaren ukamen horren sentazioarekin, bakarti eta ameslari. Hortik zaitut entzuten, hortik dut konprenitzen zure amama galtzearen pena.

-Bada besterik ere...

-Zuk erran...

Aire freskoz hantu zituen biriak. Zertaz hitz egingo zidan oraino? Gaua astuna zen, pisua, hezea. Ezezagunak ginen arren, inoiz inori aitortu gabeko sekretuak trukutzen genituen.

-Aitorrek utzi nau.

-Nor da Aitor?

-Nire mutil-laguna. Atzo abandonatu ninduen Hendaiako geltokian. Dolore bikoitzak narama desio ez ditudan bideetatik...

Malkotza berri bat nabaritu nion. Esku biak tinkatu nizkion, indar emateko, ustezko ahalmen taumaturgoak banituelako. Ez nuen deus egiten ahal, solasgaia aldatuz bere zauriaren sentazioa desbideratzeaz aparte. Adibidez, ezti-eztikien ekialdea erakutsiz:

-Goazen, Nadia.

-Bai.

-Egunsentia hor dugu jadanik.

-So egizu... Usurbil itxeska eta jaikitzeaz dago.

Elizako dorrearen geldotasuna begiztatu genuen eta argi-zirrinta sutu zenean herriko oilarrak kantuari eman ziren, batera, auzo batetik bestera, desafioan. Itsaso aldetik laino piltzar zurbila zetorren, padurak, Oria ibaiko urak eta Aginagako pentokak troxatuz. Argiaren hedapena miresgarri zitzaigun. Frontoira heldu ginenean, ondoko egunean, gizon zainartek mugitu beharko zuten harria haztatu

genuen, eta haren albotik pasatzean, megalittoa ferekatzeari ekin genion. Ez genuen harria balakatzen, munduaren gorputz unatua baino.

Ttakun hots bakuna gailendu zen. Bi joaldi eta isiltasun milimetrala. Egurraren gaineko egur kolpe pare bat gehiago ozendu zen gero, bizitzaren perkusio erritmikoa imitatuz, bihotz taupadak, zaldi lauhazkak, aditz trinkoen harilkak. Halako batean, errealitatearen zirrikitu immaterialetatik jazarri Jesus Artzeren begirada zoharrak gatibatu gintuen, baina frontoiaren izkina batean zabaldu itxura ezabatu zen berehala. Usurbilen, huntzez emokatu orainaren arteketatik lerratzen zitzaigun iragana: fantasmak ziren, fantasmak ginen, ele gabetuak izateko zorian:

-Bihar gauerditan, Laboa plazan?

-Ageriko.

BIGARREN GAUA

Laboa Plazan nintzen. Arangurenen burdin-tailuaren maldan. Ametsetan. Jendeak begiz jarraitzen nituen. Harramantzak zetozen pilota plazaren aizolbetik. Ordua gauerdira zihoan eta elizako zeinuak hamabi kolpe jotzean, Nadiarik agertzen ez bazen, etxera itzuliko nintzen, ene dezepzioa lanean itotzeko. Funtsean, jakina zen lanaz besterik ez zegoela balizko amodiozko penak sendatzeko.

Egunean zehar solastaturiko Txokoaldeko Ilunbe baserriko emazte xaharraren irri gozoaz gogoratu nintzen. Haize-kalea deitzen zutenetik Atxega jauregiko parkeraino bideratu ginen. Kobre koloreko ile ikusgarriak zituen eta maiz gelditzen ginen hatsa hartzeko:

-Laurogeita hiru urte ditut, senarra hil zitzaidan berrogeita zazpi nituelarik, bakarrik utzi ninduen hiru umeekin... zazpi hurreko familia bat ginen... hamasei urtetan hasi nintzen Lasarteko Michelinen langile, esnea saltzen genion kondesa baten gomendioz. Bazenekien Txokoalden Aginaga geltokia bazela?

-Ez, ez nekien.

-Trenean metatzen ginen, mantal zuriz jantziak, Donostiara joateko esnea saltzera. Usurbileko eskolara iristeko ere tuneletik pasatzen ginen, korrika, arrapaladan, auzoko bi neska lagun eta hiruok. Behin trenak harrapatu zuen Ana Maria eta sufrikario ikaragarriekin hil zen...

So izutuaz behatu ninduen, hamabi urte zitueneko gertakari latza atzo pasatu bailitzan. Zulaika taberna ohia atxikitzen zuen amaren seme trapua hurbildu zitzaigun, auzotar baten herioaz galdezka.

-Ezautzen al zendun?

-Ez nun ezautuko ba?

Hitza bereganatu zuen, eta ez dakit zergatik, bere bizia harilkatzeari ekin zion. Ezin isildua zen:

-Gure ostatua, goizeko bostetatik gaueko hamaiketara zabalik egoten zen. Langileek lehen kafea hartzen zuten bai eta eguneko azken zurruta. Ama ez zen nekatzen. Negar egin nuen zendu zela abisatu nindutenean...

-Langile zinen zu ere?

-Bai, herriko plastiko lantegi batean. Birrikak txarto dauzkat.

-Nik ere, artekatu zuen Ilunbe baserriko alabak, minbizia ukan eta gainditu dut. Poltsa bat jarri didate gerrialdean, ez da polita baina...

Gizonaren beso muturreko urrezko ordulariari behatzen nion noiz behinka. Presatua zen eta Patri ostatuko atea bultzatu zuen. Harritzen ninduen beti, adinekoen mintzatzeko premiak: nor zuten entzule? Nola parteka zitzaketen engoitik nehork ulertzen ez zituen bizi eskarmentu neke haiek? Nire antzeko izaki jabal bat kausitzen zuten, hitzaz eta beren baitan zaramaten amultsutasun kargaz arintzeko profitatzeko.

Nadia ez zen agertuko. Ezkortasunean urtzen nindoan. Nadia agertuko zen. Alaitzen nintzen, gau berri bat harekin zuritzeko ideiarekin. Galdera zehatzak egingen nizkion, errusiar jatorriko bidaide horrek intrigatzen ninduelako. Damurik ez zegoela gehiago detektibe ruralik inguruan, izpiritua kitzikatzen zidaten ezezagun horien hondaleei buruzko ikerketa sakonak manatzeko. Nerauk beharko nituen zuloak argitu eta argiak zulatu.

Zumetaren pareta koloretsuaren maldan emakume diafano bat bazen. Nadia zena? Ez nerrakeen. Hura baldin bazen, are handiagoa, are lirainagoa eta are maitekorragoa zen. Ttattit zegoen. Laboa plazako harrizko mailetan jarri zen, belaunak gurutzatuz eta poltsatik zigarreta paketea ateraz. Ilunbean, argi-aurka, ahotik botatzen zuen kearen zutabe grisa zehaztu nezakeen. Zutarri zoharraren zurbilak liluratu ninduen, ametsa ala amets gaiztoa, egiazki zer zen finkatzeko gai ez nintzela.

Gordelekutik jalgi nintzen.

-Nadia? Etorri zara beraz?

-Zer uste zenuen, huts egingo nizula?

Algara ozena libratu zuen. Beha nengokion, emozioen harilka trenka ezin. Zigarretaren ondarkina aztal pean lehertu, belaunikatu eta mutur oraindik beroa bildu zuen, eskura zeukan zikin-ontzi batera aurtikitzeko. Zaborrena, diotsuet, Usurbilen, ez zen txantxetako. Nik ere goizean, euria lagun, organikoen ontzi horia jaitsi nuen, Joseluk bezperan, Zubietako zabortegia Usurbiletik nola ageri zen erakutsi zidala oroituz. Ke pilare zutak altxatzen ziren kubo zuri eta berdez batez osatutako eraikinetik.

-Nadia, zer egin duzu azken hogeita lau ordu hauetan?

-Lo... eta amarekin egon naiz telefonoz. Amama etzi ehortziko dute judutar errituen arabera, lurrean bertan, mihise soilean bildua. Petersburgon dugun kusi batek sinagogan kantatuko duten kaddish liturgiako piezaren testua helaraziko digu.

-Doluminak.

-Hiltzen doan pertsona bakoitzak Jerusalemeko tenpluaren suntsiketa errepikatzen du, Ezekielen profetia egiaztatuz.

Ezekiel ahoskatu zuenean, nire kasko zokoan desertuak ireki ziren, dunak lehertu, eremu hutsen saminak eta kaddish baten antzera oihukatzen genuen ltoizen abesti mitikoaren harramantzak: ene gaztaro joana, gitarra kolpe ozenetan, eztabaida politiko antzuetan, garagardo epelegietan, noraez, bakartasun ibiltari, Zumetaren txoriak noizbait arrantotuko zirela esperoan.

Eskua nirean utzi zuen. Eztitasun eta bake olatua hedatu zen gure artean. Fisikoki sentitu nuena. Aingeru bat pasatu zen, irriz. Nadiak ahoa zabaldu zuen, tabakoak horitu hortzak aiereratuz:

-Nora eramaten nauzu gaur?

-Usurbilen bada, Elizalde eta Santuenea auzoen artean, halako hondamen industrial gune bat...

-Ideia ona. Maite ditut fin de siècle kutsuko giroak.

Eliza aldetik lerratu ginen, bi gorputz. San Esteban karrikatik errepeidea zeharkatzen duen oinezkoen zurubian geunden amen batean. Usurbileko geltokia eskuinetara utzirik, burdin-bidea trabesatu genuen. Hiriko argiek bazterrak beilegitzen zituzten.

-Egun oroz pasatzen naiz Ingemar enpresaren lantegiaren ertzetik. Bakarretan, gizon bat dakust barrandari, norbait badagoelako seinale...

-Eta, gaur, zuk bertaratzeko gogoia daukazu?

-Zergatik ez?

Espazio pribatua zen. Alanbre ziztadunez eta hesi gaindiezinez zerratua. Norbaitek, abere ala jende, sartzea lortzen balu, sirenak piztuko ziren, orroaz. Ez nintzen bereziki ausarta, lanjerraren sentrazioak sabel zokoa nahasten zidan, baina zer ez nuen eginen Nadia seduzitzeko. Batzuetan hegala zabaltzen zitzaizkigun, gutxien uste genuenean. Amodioaren izenean. Aitortu gabeko amodioen izenean, preseski.

Nadiaren trufa bolera jasan nuen:

-Eta, zuk, oro-dakit handi horrek, ba dakizu nola sartuko garen...

-Ezagutzen dut Erriberako azeri sarbide bat. Biontzat egokia. Goazen geltoki aldera eta handik saiatuko gara.

-Komisaldegi mutzitu batean bukatuko dugu...

Hitz gehiagorik ez genuen ehundu. Hesiko zuloa kausitu genuen. Nadiak egin zuen lehen pausua, nik bigarrena. Kukubilko genbiltzan, asunetan eta zolako harrizketan belaunak larrutuz. Barnean, harri errauts usain batek gatibatu gintuen. Hormigoizko murruek eta amiantoz emokatu eberitazko hegatsak osatu aterpe baten aizolbean aurkitu ginen. Azkonarrak bezain sotil gindoazen, zer gerta ere. Zapata hatzak uzten genituen lurreko haustegi grisean. Gibelera so egin eta ilargian geundela zirudien, galduak, norabide eta etxegabe.

-Uste dut sirenak ez duela joko. Berri ona guretzat.

-Hantxe! Izaki bitxi hura? Guregana dator. Zaindaria. Ez genuke hemen egon behar.

Bazen norbait. Begitarte zapaleko gizona astiro zetorren, txapela buruan, jendekin. Harri-etzpalen artetik urratzen zuen xendra.

-Zer ari zarete hemen? Ez al dakizue hau infernua dela? ... Duela bi urte itxi zuten, hogeita hamaika langile kanporatuz. Eginkizun hitsaren salatzeke manifestaldian parte hartu nuen, ehun bat herritarrekin. Alta, hiru hilabete lehenago, enpresa bizigarria eta errentagarria zela adierazia zuten jabeek. Usurbileko fabrika sakrifikatu omen zuten Lugokoaren salbatzeke, langileak lehian jarriz. Ez naiz aurkeztu, hara, Koldo nauzue.

-Bikain... Langabetuen artean zinen zu ere?

-Ez, nik hogeita hamasei urte pasa nituen Ingemarren, erretiroa hartu arte. Ezkondu eta ondoko urtean hasi nintzen...

Behatz makurtuekiko eskuak zituen. Begi kokin eta abilak. Larrua beltz. Distira. Garai gogorretako behargina zen, baina dolurik ez zuen, eta laster lahardi zatekeen enpresaren gainbeherak ez zion erresuminik sortzen. Aitzinean plantatu zitzaigun, granito zati gris batean ixtaklok:

- Andoaingo fundizio batean egin nintzen langile. Lanik ez zen falta orduan, bat utzi eta bestea hor geneukan biharamunean berean, aiduru... Segaria nintzen ni, hamabi gizoneko talde batean, berrogei mila kiloko harriak ebakitzeko, nagusiak eskatu neurrietan... zerrak martxan ematen genituen, zirri-zirra, zirri-zarra... ura, karia eta beranduago granaila botatzen genizkion... bustirik, errauts eta lokatzetan bukatzen genuen... harria mozteko hogeita hamazazpi egun ematen zituen makina bat bagenuen, zarata gaitzekoa, gau eta egun ari zen, handiagoa zaila, kaskoak bagenituen, baina guk orain entzumena izorratua...

-Nondik ekartzen zenuten harria?

Nadiaren galdeari zorrotz erantzun zion Koldok.

-Marmola zuria Italiatik, granitoa Nafarroatik, Galiziatik eta Brasildik ere... Ontziz Pasaia eta kamioiez Usurbilera. Begira, marmola Italian moztu eta hemen leuntzen genuen... aita-eme batzuek gero hiru trailer urdinekin berriz Italiara eramaten zuten... kamioak hamarnaka zain egoten ziren kargatuak izateko, kristona zen, bost ehun langile ginen garairik hoberenean, ez duzue sinetsiko... zortzi ordu egiten genituen aldizka, zazpi egunez segidan, eta nik oporrak urrian nituen, ehizarako badakizu...

-Nola bukatu zen hain enpresa bikainak?

-Jesus Beltza gure talde buruak erraten zigun tu no te vas a jubilar en Ingemar, nos van a comer los chinos. Eta hala gertatu zen... Sindikatuak? Grebarik luzeenak hirurogei egun iraun zuen, jakizu erdaldunak zirela beroenak soldatak hobetzeko lana uzteko tenorean... Aramendi zaharra hil zenean gauzak okertu ziren ... Istripuak baziren, baiki, siempre te quedaras cojo ebatzi zidan medikuak harria oinetara erori zitzaidanean, baina sendatzea lortu nuen, borondatez... ez zen hildakorik egon hemen, Andoaingo fundizioan aldiz bai, hiru urtean bi, infernua... zer uste duzue? Orain hogeitazpi urte nork esango zuen fabrika hau itxiko zela!

Ra-ra-ra-ra harri-zerra azantz izugarriak ase zuen Ingemar fabrikaren sabel agorra. Lohi ziliportek tolatzako hormak, tuboak, kateak, harri eta leihoetako beira ezpalak estali zituzten. Mundu bat itzali zen: hondakinak eta zatarrak utzi zizkigun herentzian. Besterik ez. Koldok aldegin eta bakarrik gelditu ginen fabrika erraldoiaren erdi-minaren isiltasun lehergarrian. Marmola xaflak baziren, granito taula animalak eta gres grisak lurrean, mugiezin, Usurbileko dema-plazako 1800 eta 3000 kiloko proba harriak bailiran. Hari batek lotzen zituen harri horiek guztiak, gizakiaren etorkizunaren beldurrek, izerdiek, minek, intziriek eta plazer txikiek azpatzen zutena.

Isiltasun mineralaren zaina astindu nuen:

-Iragan larunbatean, 1800 kiloko harriarekin giza-proba bi taldeen arteko lehiaren lekuko izan nintzen. Idien orde z hiru gizon, hirugarren batek ahotsez sustatzen zituela, akuilurik gabe, bistan dena. Etorri! Bota! Eta harriaren kukuso jauziaren klaska zoruan, eta ikusleen oihuak, hoi dek, apa hi, eta parioak libro, eta Txokoalde, Urdaiaga eta Aginagatik hurbildu baserritarrak eki pean txaloka. Ikusgarria zen! Zer deritzozu?

Harriak garraiatzeko grua horiaren eskeletoak, zabor eta hondarkinen gainean, baldintzatu zuen Nadiaren isiltasuna : ene galdera ezerezean izoztu zen. Prekariatate zaporea zeukan fabrika goibel osoak.

-Ederra zara Nadia, ilargi zirristaren mendean. Bi izate aztoratu gara, iraganaren eta orainaren arteko ez-leku batean preso, etorkizun bila.

Ezpainak bildu zituen eta nire ezpainetan espero ez nuen musu beroa eman zuen. Zer zen hori? Arintasun horrek marmolaren pisua zeukan eta bizitza bat zedarritu zezakeen. Granitozko izakiak ginen, brutoak, ebakitzekoak, leuntzekoak, moldatzekoak, abandonatzekoak balio hurbilaren ikurra urruntzen zenean.

Errauts olde batek itsutu gintuen eta beti azantz arraro beti... Bazen norbait, Koldo eta gutaz aparte, lantegi hutsean barrandari. Arima malefikoa ala zaindari lerdan eta larderiatsua? Zarata hantzen zihoan. Harriak zerutik eroriko bailiran. Nadiarengana plegatu nintzen, haren gorputz mehar eta zainartaren kurbetan geriza aurkituko nuelakoan. Ez zen higitu. Altzo beroan hartu ninduen debaldeko oharrik gabe.

Herotsa zetorren aldera adi-adi zuzendu eta ohartu ginen gaizki ebaki kuboak zirela, zementa puskaz osatu meta batetik biribilka lerratzen. Nork edo zerk zituen bultzatu? Zehatz ezina zen, isiltasun dorpea berehala hedatu zelako barne uher haietan. Koldoren hitzak genituen gogoan. Haren irri abila, osagarria, kalipua. Berrogei urtez arizan zen ke, hauts eta errauts artean, auhenik gabe sekula.

Nadiak hitz hartu zuen:

-Aitor eta biok bidaiaz genbiltzan. Erran dizut bai Hendaiako topo geltokian bereizi zirela gure urratsak eta Usurbileraino etorri naiz trenez, ezagutzen ez dudana hirian zenbait denbora pasatzera. Gogoetatzeko. Pentsio batean nago, gela monakal batean eta han ene egoeraz pentsa dezaket. Badakizu zein ondoriotara iritsi naizen?

-Nola nekike?

-Ba, honatx: Aitor maite dut beti, espero dut itzuliko dela eta gure bidaia jarraituko dugula. Hura barik ez naiteke bizi. Aitor murmuratzen dut eta funanbulista baten moduan holtz hegian aurkitzen naiz, jauzi egin ezin, oreka dudatsuan...

-Eta nik zer egiten dut zure istorio horretan?

-Beharrezkoa zaitut, ongi eta egoki hausnartzeko... harria bezain indartsua den adiskide batekin ibiltzea gustatzen zait.

-Ni naiz harri indartsu hori?

Ez zidan ihardetsi. Bitxi zitzaidan Andatza mendiko trikuharri baten parekoa izatea Nadiaren begietan. Egia zen, harriz inguratua nintzela, Ingemar enpresa ohi honen aterpean, etxean, mendian, edozein plazetako herri kirol saioen karietara... Hamabost urteko Udane neskatxak monolito borobila lepondoraino altxatzen zuen eta irakurtzen nituen liburuetako tituluetan halaber harria nabarmentzen zen. Lelotzen nindoan: granittoa nintzen, marmol grisa, gresa arrosa, olatuek zanpatzen zuten jalkina edo, pixka bat berotzen nintzenean, lehen aro geologikoetako arroka magmatikoa.

Higamen eta sedimentatze fenomenoaren eratorrian nebilen artean, Nadia nigandik urrundu zen. Bat batean, haren gorputzaren berotasuna falta neukan.

-Goizean, ahoskatu zuen samurkiro, zerbaitek hunkitu nau. Usurbileko dema-plaza hegian nintzen, eta ehunka haur baziren, jostari, oihukari, kantari, udako beren zaindari gazteen gomendioan. Ahots txiki horiek, batera, nire haurtzaroko abestia ozen arazten zuten:

Sagu txiki, sagu maite,
Zu zuloan gorde zaite
Gatuak ikusten bazaitu
Kris-kras kris-kras janen zaitu....

Nire ondoan zetzan emazteak umeen melodia hain amultsuki ematen zuen, non ni ere eztitasun itsaso batean ito nintzen. Ez nekien igerika. Zer konpreniarazi nahi zidan Nadiak? Saguak xederan harrapatua bukatzen zuen edo odol putzu katuen hagin artean. Salbatzerik ez zegoen. Horrelakoxea nintzen ni ere Nadiaren menean, sagu, harkaitz, lehertzear.

Ekialdetik iraitzi zuen egunaren lehen arraioak. Fabrika bakartuaren barnea distiraz jantzi zen, tuboak, hodiak, zizelkatzeko tresna zaharrak, sukaldeetan pausatzen ziren xaflak, marmol blokeak, laster lekuz aldatuko zituzten lanabes eta makina astunak halo berezi batez troxatuz. Zutitu ginen, jantzietako errautsa kenduz. Behialako azeri pasagia ezkutu hartara ernatu ginen, desagertzeko, Ingemarreko azken langile-zaindaria etorri aitzin.

Kanpoan, betikoa:

-Eta bihar? Berriz Laboa plazan?

-Ageriko...

HIRUGARREN GAUA

Oren erdi baten aitzinarekin agertu nintzen Nadiarekiko hitzordura. Belar idor usain on bat nekarren larruari josia. Eguna pasatu nuen Lasazpi baserrian, soroak biltzeko esku ukaldi hiritar bat ematen. Hiritar diot, sarde ukaldi baino hitzaldi gehiago egin nuelako, lagunek, izerdi patsetan, intzirika, orgak karratuan kargatzen zituzten bitartean. Arrillaga II-ren modeloari jarraikiz, aizkolari izateko amets ez zebilen etxeko seme gazteak zuen traktorea gidatzen, bere kontaktuekin iritziak eskutelez ordeztzen zituela.

Negurako mukuru utzi genuen selaurua. Lasazpiko etxeko andereak zerbait hurrupatzera gonbidatu gintuen eta hamar kide bildu ginen ezkaratzeko mahaiaren bueltan. Eskuak garbitu genituen aska zabalean, kopetan itsatsi hazi eta errauts puxikak ere kenduz. Irri, algara, garrasi eta animo bultzadak biderkatu ziren, poztasuna halaber, leku seguruean zirelako belarrak, euritik salbu. Lasazpitik jaitsi nintzen, Urdaigako San Esteban basilizaren eretzetik pasatu eta Santuenerako bide lauzatura zuzenduz.

Lasazpiko sukaldean, Mainerren aitarekin egon nintzen solasean. Artzaina izana zen. Bedaioko alhagietara eramaten zituen ardiak udaberrian, kasik larrazkeneko lehen elurretaraino. Bedaio, Nafarroako mugetan zetzan makillez habitatu Tolosako auzoa zen, Balerdi mendiaren maldan. Artaldeak irudikatu nituen, orain txirindulariek hartzen zituzten Urdaigako lurrezko xendretatik, Asteasu eta Zizurkilen barna, Oria ibaiaren oheari jarraikiz, Bedaioa iristen, marraz eta joareak ozen. Gaur egun, kotxe gehiegi bazen, fabrika, lau lerrotako autobia, gasolindegia, supermerkatu eta etxebizitza sobera ibilbide horren ipularretan. Ametsaren lana zen nire irudipena, adineko gizonaren ele zohardietan oinarrituz eraikia.

Hiri bildura heltzean, herritar batzuk gurutzatu nituen. Txirristra ostatuan sartzear zeuden.

-Ze mouz zabilta Usurbildik?

-Ongi, biziki ongi, etxean bezala...

Egiaz, ederki sentitzen nintzen Usurbilen, aspaldiko lagunekin kafea hartzen, lantxurdarekin ibilki edo jendeekin eleketa. Gainera, lehen aldian zen osoki euskaraz bizitzen ahal nintzela, bortxatu gabe, nahiz eta batzuetan ene gaztelera mendrea ere erabiltzea tokatzen zitzaidan. Askotan ez ordea. Buru-hauste linguistikorik ez neukan, nahiz eta bakarrik bizi nintzen, baina ez nintzen sekula bakarrik sentitzen: herria, herritarren beharren arabera antolatua zen, txikienetik handienera, bakoitzak bere habia egin zezan, ahalmen ugariak txirikordatuz.

Bazter orotara beha jarri nintzen. Gaur hor zen jadanik eta izarrak kliskari. Soa apaldu eta Nadia ere han zen, Mikel Laboaren omenezko burdin-tailuaren aldamenean. Niri begira. Nire burutazioen

norantzak asmatuko zituen jainko kurios eta mehatxuz hantu haien gisara. Bihotz-hautsien aldarean sakrifikatuko ninduen aurki, airoski, garaipen oihuak ozen. Anartean ihardukiko nuen, borrokatuko nintzen, Nadiaren alde, ene alde, lur minbera honen alde.

Plazaren erdian, eta uste gabetarik, bata bestearen besoetara jalki ginen. Hain denbora laburrean, gorputzen berotasunaren falta nabaritzen ote genuen? Kilikak eta kilimak partekatu genituen, eskuen ibilera lizunak, ezpainen arrotasuna. Nadiaren ahotsak belarriak harrotu zizkidan:

-Etorri zara?

-Bai, hemen nago eta gaur, urrezko gauaz gozatuko dugu, badakizu ura dela maitasunaren sinboloa, ura eta urdina dira erromantikoen ikurrak. Baina gu ez gara erromantikoak, ezta?

-Ez, ez gara. Pragmatikoak baizik. Oinak lurrean ditugu eta buruak hodeietan. Baina zu, alderantziz, ameslari hutsa zara. Badakizu ene konkistatzeko xantzarik ez duzula...

-Nork daki?

-Arrazoa duzu, nork daki... zure temak poztzen nau. Ez zara maitemindua baina maite nauzu, nola esplikatzen duzu hori?

-Har ezazu argi hau eta goazen. Auzia uretan trenkatuko dugu, zaude lasai...

Zaude lasai ironikoa harilkatu nuenean, Usurbileko elizaren horman gizon zohar baten silueta agertu zen: Joxean Artzeren soslaia sumatu eta entzun nuen haren ahots sakona, metalikoa, zai bazaude, zaude lasai ahoskatzen zuen, askatuko zaituela eransten eta kateak itsusiak baitira hilotzaren gorputzean hitz kordelarekin bukatzen. Jauzikaratu nintzen. Izua eta murru beilegiko zuri-beltzezko holograma antzeko zera barreiatu zenean, ez nintzen batere lasai sentitu. Nadiaren eskua tinkatu nuen. Emakume ederretan ederrenak nire begitazio terriblea ez zuen ulertzen.

-Zerbait huts egin dut?

-Agerinde bat zen, deus ez.

Egiategi zuberotarraren lexikoa erabiltzera bulkatzen ninduen beldur zozoak. Itxura immateriala ezabatu eta baketu nintzen. Beste egitekorik bageneukan. Alabaina, Usurbileko udaletxeak herritaren esku uzten zuen kotxe elektrikoa erreserbatu nuen gau baterako Aginaga aldera joan eta Mapil baserriaren gibelean aparkatzeko. Bezperan, ontzitxo urdin bat begiztatua nuen, zingira hegian eta marinel gazteen loriaz, hura baliatuko genuen Oriako ihiztoketan nabigatzeko.

Gogoan nuen nola goiz batez, Opil Goxoa okindegian, alferren hamaiketako egiten nengoela, adineko bi hauteman nituen, espantuka:

-Agiñan dirua eta indarra... dirua, eliza berritzeko loteria behin tokatu zelakoan, nahiz eta herriko baserri asko hipotekatu ziren horretarako. Ahantzi gabe, Kolonbiako lehorretan San Jose ontzia aurkitu zutela, hemen egina, urrez kargatua...

- ... badira gure herria itsasorik gabeko portu bat dela diotenak... aberastu gara... errioko altxorrak, alak, linternak, baiak, txitxardin askak eta polaña... eta tabakoa uretan, angulak akabatzeko...

-Denborak joan dira, Aginagan zerbitzatzen direnak, dagoeneko kanpotik etortzen zaizkigu...

Segur naiz berriketan segitu zutela. Angula-mangula. Euria ari zuen eta Usurbileko burdindegian erosi artzain-aterkia irekitzeko giro zinez egokia zen. Gizonen elasturiek ibaitik paseatzeko gutizia sustatu zidaten eta Nadia agertzeak motibazioa mila bider indartzen zidan.

Zingiran geunden. Alaren barnera jauzi egin genuen, zapatak bustiz. Motorra piztu nuen. Oria ibaira itzulikatu nuen ontzitxoaren txopa. Lurraren eta uraren misterioaren bihotzean sartzeaz geunden. Motorraren xuxurla xehearen gainetik, huntzak eta kahakak aditzen genituen, gau txori herabeen txioak, zakur zaunka urrunak eta gure hatsaren elkorra, ahotik biriketara eta alderantziz. Munduaren parte biologikoak ginen, poetek gizakiaren eta naturaren artean egiten zuten bereizketarik ez bailitzan. Arrakalak ginen, pitzadurak, orbain idorrak, ziztu bizian sortzen eta hiltzen ginen molekulak.

Iragan mendeetan, Oriako ezpondetan astileroak kausitzen ziren. Gabarrak, alak, txanelak moldatzen zituzten Andatza eta Aginaga bortuetako egurrekin. Bide komertzial guztien abiapuntua zen Mapil. Orain aldiz, erreka hegiak artoz, ilarrez, sagarrondoaz eta baratzezainek oparo oparitzen zizkizuten kalabazinaz emokatuak ziren. Marearen erritmoan bizi zen mundu oso bat hedatzen zen behere horretan. Ederrena, lagunek aitortzen zidatenez, larrazkenetan, eguna altxatzean, eki leinuruak ebakitzen zuen lainoaren argitasun uherra, erreka azalean.

Nadia erdiko oholean zetzan. Gorputza gerritik plegatuz atzera so egin zuen. Bazirudien gaueko ikusmena genuela.

-Badakizu zer?

Nadiaren botza zen. Astotik lastora:

-Iragan eguerdi batez, Patri jatetxean, gosturik hoberenean mahaian jarria nintzen, azietan txapiroiak tinta beltzean eta txakolina basoan... hoberik ezin... beltz handi bat hurbildu zitzaidan girgila merkeak saltzera. Moltsa etxean utzirik jaitsia nintzen, zorigaitzez, eta beste baterako izan beharko zuela jakinarazi nion. Zedrozko elefante txiki bat kokatu zidan ahurrean:

-Suerte para ti... un mal dia para mi!

Lagunak hunkitua zirudien. Beltzak, nik, Santueneko erriberetako baratzeetan, biperra biltzen ikusten nituela salatu nion. Edo topoan, Donostiarantz. Nadiak elefantetxoaren zizelkia erakutsi zidan. Solasa agortu zen. Lokatz hil eta landare urrin segikor bat zetorren Oriaren errai likidoetatik. Betetzen gintuen. Ibaiaren hezurdi isurkarian geunden oreka galtzeaz eta mendi aldetik, txalaparta soinu bat zetorren, oihar. Makilek, harrizko zaflak jotzen zituzten, bihotz-petrifikatuen taupadak biderkatuz. Handik gutxira, eskuz bulkatu alatxoa geneukan begi bistan, geldo, isil, ahul. Linterna baten argi zuhurrean, izaki trapuak baia maneiatzen zuen trebeki, eta noiztenka, har malatsen maneran bihurtzeko ziren zilarki zurbilak jalgitzen zituen uretik. Angulak ziren, angula famatuak, Aginaga Angulinaga egiten zutenak.

-Ez nauzue ikusi...

-Ez diogu inori ezer erranen.

-Hoi denk fundamentua!

Korrontea azkarrena zen aldean zegoen ala umila. Kontrabandoan ari ote zen burua kaputzaz estalia zuen gizona? Txanelaren hondoan, fusil bat zeukan eta bakean utzi genuen, zer gerta ere. Konturatzen nintzen ur geldoak bere sabelera tirriatzen ninduela. Isuri harkorra zen, belar gorakoi eta zuhaitz zapalen magalean, egunean bietan itsasoko gatzak hazten zuena. Ahoa miresmenez zabalik zegoen Nadiari behatzen nion, urera jauzi egiteko jaidura zapalduz. Lur heze eta lokatz usainek zorabiatzen ninduten.

Intziri ahula libratu Nadiak:

-Argitasun baltikoak kitzikatzen duen Petersburgon ere kanalak badira eta amarekin, amamaren gana joan nintzen batez, Neva ibaian behera ibili ginen hiruek... batelero kalakaria geneukan arraunlari eta gidari, udaberritan, hormazko geruza kraskaldi erraldoietan puskatzen zen garaian...

-Aginagako ihitokiek ez dute deus ikustekorik Petersburgokoekin.

-Ez pentsa, Pedro Handia tsarrak lan handiak eraman zituen, justuki, hango ordoki hezeak uraren atzamarretatik kentzeko. Petersburgoren bihotz punparia urmael dardartia da.

-Hiriak beraz kaosaren eta izan-premiaren arteko talkatik jaukitzen dira? Hori da frogatu nahi didazuna? Maitasuna ere hala liteke?

-Gure artean ez dago maitasunik...

Zer uste zuen Nadiak nik ez nuela harenganako maitasunik? Hirugarren gaua zen elkarrekin pasatzen genuela, ez buru ez buztanik ez zuten mintzaldi sasi-filosofikoak irunez. Irria partekatzen genuen, haserrea, isiltasun behartua baina gauerditan, Mikel Laboa plazan ginen, kidea noiz etorriko zen aiduru. Hori ez baldin bazen maitasuna...

Txanelaren zolan lur mokorrek baziren. Motorra eho nuen, ubide hertsietatik eratortzeko. Gauak zigun norabidea finkatzen: anfibio ausarten eresiek eta txori izutuen auhenek oilo-larrua eragiten ziguten, adimenak ez ziren hegietatik aldentzen eta apo baten jauziak lokatz malgua ziliportatzen zuen. Mokokozabal saldoak airea moztu zuen.

-Aginaga auzo berezia da, beko errio-zaleak beti pataskaz dabilta goiko baserritar mendizaleekin. Aski duzu, etxe-saihetsean belar meta perfektua daukan Etzal baserriko ahizpekin mintzatzea eztabaida horien gaurkotasunaz jabetzeko... hala ere elkartzen dira, Etxebeste jaunaren diruz eraiki eliza zaharra auzolanean konpontzeko adibidez... Azkorri aldean sortzen den Oria ibaiak, bestalde, Aginaga zurkaizten du, Usurbil bera errekarri bizkarrez emana bizi den artean. Ez luzerako ordea, ETBn entzun baitut, Gipuzkoako Uhin Artifizial eta ur-jokoen parke erraldoiak Orbeldi inguruetan eraiki behar dituztela, erraustegiaren maldan eta han-hor iragarria den mega-kartzelaren auzunean...

-Ez al duzu zientzia-fikzio katastrofista gehiegi leitzen zuk? Nahiago dut Wikipedia bezala mintzo zarenean...

-Horixe ba... Usurbileraino nabigagarria zen Oria, Santueneko eiherako presa altxatu zen arte... eta lerraz edo urkuiluz jaitsi errotarriak ontziz eramaten ziren Andatzatik Orioraino...

Bigarren musua pausatu zidan ezpainetan, isil nendin menturaz. Ala arina abantzu uzkaile zen Nadia bankutik altxatu zenean. Oihu latz batek ebaki zuen gauaren mihise mamitsua: zer zen hori? Irasasiko oihanetan galdutako oreinaren harramantza ote? Beharbada (euskal) film sobera ikusten nuen eta ezer ez zen, ene buruko barne-zarata elkorra baino.

-Marea bat zara Nadia eta nire sentsazioekin jostatzen zara potta ematen didazunean, ez dakit gehiago nongoa naizen. Lehen ere, marea goratzean, padurako lur busti hauek Oriokoak ziren, eta itsasoa apaltzean aldiz, Usurbilekoak.

-Konparazio egokia. Ez dut ahantziko. Zure ondoan etzan naiteke?

-Zatoz.

Ibaiaren muinean ginen, uraren ispiluan. Kulunkatzetik gelditu zenean, alaren zola lakarrean geunden, bi gorputzak bat, begiak norabide berdinerara zuzenduak. Hezetasun hotza larruko poroetatik sartzen zitzaigun: mamuak baziren, ziur, borrokan, garrasi zintzurkoiek natura geldoa zulatzen zutelako. Errekatik ikusten ez zen Orio eta Aginaga arteko errepidean auto bat iragan zen ziztuan.

Mundutik at geunden.

Tiro bat. Sasiko hegazti eta ugaztun guztiak hegaldatu ziren, fra-fra-fra. Lanjerra sentitzen zuten. Beste tiro bat. Ehiztari bat bazen, erbi edo oilagor bila. Abere ezindu orroak urratu zuen ilunpea. Handik laster, Oriaren ezker ezpondatik zebilen itzal bat zehaztu genuen, eskopeta eskuetan eta zaku astuna sorbaldan. Zanpa-zanpa zihoan, legez kanpo zebilelako agian. Txanelaren gerizpean gorde ginen, kontrabandoan genbiltzalako gu ere.

Ekialdetik sugartu zen ortzea. Mapileko portu abegikorrera itzultzeko tenorea genuen. Bi arraun ukaldi eta lur fermuan geunden. Sosegatuak. Baketuak. Ura zen gogoetak bideratzeko hoberena: aldi berean, geldotasuna irudikatzen zuen, eta mugimendu etengabea, bizitzaren alfa eta omega, den-dena jatorrira bideratzen gintuen isuri uhargia zelako. Askotan ukatzen genuen errealitatearen funtsa eguneroko itxurakeriez harago aurkitzen zela frogatzen zuten ur, euri, uholde eta iturriek.

Laino mihiek troxatzen zuten Aginaga. Jendeak oraino ohean ziren. Laster batean Elizalden aurkitu ginen udaletxe pean autoa uzteko. Han bereizten baitziren gure bideak.

-Bihar ere bai?

-Ez dakit.

LAUGARREN GAUA

Frontalekin argitzen genuen bidea. Ilargiak ere laguntzen gintuen. Ez ginen galduko. Nadia hitz ordura jin zen, eta euskal pilotariek, ETB Kantxako elkarrizketetan zioten eran, ni pozik... murmur nebilen, urratsean, hitzik gabeko abesti bat ezpainetan. Nadiaren gibeletik. Hain ederra kausitzen emakumearen siluetak aztoratzen ninduen, neukan zorteaz konturatzea bera zail zitzaidala: zer zuen, gauetz gau, leku inprobable horietara nirekin etortzeko? Aitorrek txoke emozional egoeran utzi al zuen? Arriskuan zegoela iruditzen zitzaidan, Aitorren agerpena espero zuelako eta ez zelako sekula itzuliko. Amodio eternalean sinestea... bai, bai, baina jakin behar zen urrezko liburu horren orrialdeak inguratzen, kapitulu berriak idazteko.

-Zer egin duzu egun?

-Lo, lo egin dut. Ez nuen ohetik altxatzeko gogorik. Pentsioko leihoko pertsianen artetik eguzkia sartzen nekusan, kanpoko hotsak banaka izendatzen nituen eta mundua errautsiko ez zela ondorioztatzen nuenean, estaliaren azpira biribilkatzen nintzen, haur denborako Errusia zaharreko argitasun beilegiak irudikatzen... Eta zu lanpetua ibili zara, ezta?

-Bai eta ez.

Erantzunaren arraroaz jabetu nintzen. Nola aterako nintzen zepo zital horretatik. Betekizunen zerrenda osatu nuen mentalki: ez nintzen gelditu. Hasteko, esku pean neukan artikuluari paragrafo bat gehitu nion, Patri jatetxean bazkaldu nintzen hegoaldeko orduan, eta arrats apalean, Santueneko ezker pareta urdinera lehiatu nintzen, pala eskuan, teniseko pilotarekin, hormaren kontra ene burua desafiatzeko eta ezker lantzeko. Ahantzi gabe, San Esteban karrikan gora zetozen ahizpa bizkiak agurtu nituela, biak berdin beiti... edo eguraldiaren arabera, bata gorritz eta beste urdinez, batzuetan alderantziz.

Andatza gailurrerako pista hartu genuen, Igartza Zabaleko arditegiaren aldamenetik. Sudur puntara lerratu zitzaidan izerdi ttantta idortu nuen behatz soilaz. Mugarri ikusgarri bat erakutsi nahi nion Nadiari, harri karratua, gurutzeta, apezpiku makilen kako borobil zizelkatua zekarrena.

-Erritual post-moderno baten seinalea da?

-Ez, ihardetsi nion, erdi-aroan lur hauek Ibañetako abadeen ontasunak ziren, hemengo artzain, itzain, harri egile eta oihan zainei erabiltzeko eskubidea uzten zietela. Iragan lantsu baten aztarnetatik gabiltza. Denborak, jendeak, garaiak, frontierak, debekuak, zilegiak eta sinesteak gurutzatzen dira Andatzen.

Erreka xuxurlari baten ohantzetik aitzinatzen ginen. Astiro. Harri borobil handi bat begietsi genuen: errotarria zen, mazela hauetan, Euskal Herriko eiheretako, ogi, zekale, gari eta arto-txiki bihien ehotzeko behereko eta goiko harriak ebakitzen zirelako. Zuhaitz eta iratzeen artetik, oihuak, manuak,

laidoak hautematen genituen. Gizon multzoak baziren burdin-makilak eskuan, harriari kolpeka, ezpalak inguruan barreiatzen zitzaizkiela. Pitxarrak hegaldak zebiltzan, ahotik ahora eta sagardo hartzituaren gustuak, sabaiak pizten zituen, langileen arteko bulkadak areagotuz. Harrobiko atean, orgak, lerak eta urkuiluak zeuden, errotarri horiek guztiak Aginagako Mapileko portura eramateko. Historia ezaguna. Tupustean, aurrean genuen haserre, Joanes Etxebeste harri-egilea:

-Debekatua da hemen sartzea!!!

Arropa luze urdinez jantzi andere bat azaldu zen jaunaren ezkerretik, koroa buruan eta behatz guztietan urrezko eta zilarrezko eraztunak zeramazkiela. Nadiak atzera egin zuen. Haren gibelean gorde nintzen:

-Maria Riezta naiz, Oriokoa, lur hau Ibañetako apez nagusi zekenek ene esku utzi zuten. Tratu ona egin nuen: erabilpenaren emaitzak enetzat, bai eta ekoizten diren errotarriak.

Joanes Etxebeste eta Maria Riezta, bata besteaz fidagaitz egon ziren, begirada beltzak trukatu. Nadia ikaraz sumatzen nuen. Giroa gaiztotzen ari zen. Lekutu behar genuen, ahalik lasterren. Alde egin genuen, pentoka etsai, behialako pistara heldu asmoz, izate larderiatsuen harotik urrun. Lehenagoko jendea latza zen gero, bortitza, kasko gogorra, odol beroa, bizitorea, hitza hitz eta kolpea kolpe zeukana. Lainotu ginen, batzuek lerraketen moduan zibilizatu. Trakets erabiltzen genuen aditz trinkoa zen harrizko mende haietako gure ondasun bakarra. Pentsamenduak, algara zozoa eragin zidan, kontrolatu ez nuena.

Gurutze zurira urratu genuen, izar ihintzak busti belar, asun, sasi eta iratzeen artetik sigi-saga zihoan bidexkan gora. Ilargiaren kliska konplizeak hartzen genituen arbolen artetik. Gauaren bakea hunkigarria zen. Nadiaren hatsa sustatzaile neukan. Oihanetik atera ginenean, kobalto koloreko zeruaren zabalerak irentsi gintuen. Piztia mineral baten hagineta erori ginen.

-Bertikaltasunaren zirrara.

-Horrelakoak gara, sententziatu zuen nirekin zebilen emakume distiratsuak, horizontalean bizi gara, bertikaltasun ametsez. Hurbildu arau, horizontea preseski, urruntzen zaigu, ispiatzea bailitzan, gure barne-dudez harago haiatu nahi bagintu bezala.

-Nondik daukazu zuhurtzia hori?

-Goian gara... Begira hantxe, seinale geodesikoa, antenen haga, ikurrina eta beherean aterpea.

Nadiak batzuetan ez zuen nire galderei arraposturik ematen. Elearen norantza trakestea gustatzen zitzaion. Une hartan, menturaz, ehortzi berri zuten Petersburgoko amama zukeen gogoan. Banekien malenkonia eta tristura ximixta batek kixkali ziola garuna. Alaitzen saiatu nintzen:

-Hemen ere errotarri bat dago, pixor putzu batean asfixiatu ziren bi anaien oroimenez. Baina, barkatu, ez da, beharbada, agerpenik egokiena zure beltzuriaren arintzeko...

-Ez kezkatu niregatik. Petersburgoko sinagogan amama zenari eskaini zioten kaddisharen testua igorri didate wasapez. Entzun nahi duzu?

-Sar gaitezen etxola horretan.

Bekoz-beko eman ginen. Nadiak otoitza irakurtzeari ekin zion. Bere penaren kide egiten ninduten hebrearezko kaligrafiaz idatzi hitzek. Nadiak itzulpena egiten zidan.

-Otoitzak balio du bizidun bakoitzaren eta txikienaren sufrikarioen arintzeko, berezi diren maitaleak berriz biltzeko, lurreko minen sendatzeko edo bekaizkeriatik eskuzabaltasunera pasatzeko...

Kulunkaz salmokatzen zuen pantailan hedatzen ari zen idazkia. Etorkizun iragar ezinaren mehatxutik ihes zebilela iruditzen zitzaidan. Ez bide zen nirekin geratuko. Argi neukan. Baina, esperatzen nerrarikan. Andatza gainean mirakulua egiazta zitekeen. Izarloka batek ortzearen sakona busti zuen bere zirristaz. Zortea ekarriko zidan.

Zarpil beztitu neska eta mutiko taldeak haizatzen zuten urde tropa bat iragan zen txabolaren beheeretik. Kurrinka eta sudur karranka elkorrek galarazi zuten Nadiaren amamaren aldeko kaddish izugarriaren tehenta partekatua. Lodikoteak ziren xerriak, ezkurrez eta lur pean musurika aurkitzen zituzten bihi eta fruitu mardoaz haziak. Haur bihurriak korrika zebiltzan alderik alde, kitzika, txantxa eta laidoka. Umeei batera Joanes Etxebeste harri-egileen nagusia eta Maria Riezta oriotarra zetozen, biak abiletan abilenak...

Gau-txori baten auhena aditu genuen. Bisio plaxentaren irudiak ezabatu ziren. Punta luzeko arbolaren hosto lerdenak inarosten zituen haize meheak. Isiltasun pisuak gatibatu gintuen. Soineko zelulen arteko espazio zurbilak irekitzen zihoazkigun, galderarik egiten ez zen eremu ezezagunaren atarian. Infernua zen, edo paradisia, ez genekien. Andatza gaineko etxearen aizolbean ez ginen hain gaizki ere, solasean eta gorputz bien berotasunaz profitatzen. Azeria izan zitekeen abere sotil eta bizitorea hutsunea trabesatu zuen. Non ziren bada behialako urdeak? Nora joan ziren Joanes Etxebeste eta Maria Riezta?

Galderak holtz hegian zeuden zintzilik. Gau hartan, Andatzak sorgindua zirudien. Txalaparta soinu bat ozendu zen. Palanka eta pikotxa zorrotzei uztarturik bizi ziren errotarri ebakitzailen hotsak zitezkeen. Danba, danba eta danba: joaldiek kaosetik bizitzara eramaten gintuzten, bihotzaren bentrakuluak eta haragi arrakala guztiak sentsazioz mukurutuz. Garrasia hauteman genuen eta berehala, laido kordela gordina: zer gertatu zen? Nadiaren ahots sotila entzun nuen:

-Zer pasatu da?

Gizon zardai bat gureganatu zen.

-Zizelkatzen ari nintzen errotarria hautsi zait, begia zulatzen ari nintzaion eta pikotx kaska azkarregia eman eta horra, harria lau pusketan apurtua! Oa gure maisua kexu gorrian jarriko da, gaztigatuko nau, kanporatuko... zor dizkidan errealak ordaindu gabe. Hobe dut eskapatzea, ez duzue uste?

-Nora joango zara?

-Zizurkil aldera jaitsiko naiz, gauak gauari, ea han lana aurkitzen dudan, familiaren hazteko. Emaztea, zortzi ume eta gurasoak batera bizi gara, Zubietako borda urrundu batean...

-Zorte on.

-Erraiozue ez nauzuela ikusi.

Hitza eman genion. Errotarriak urre ontza parrasta balio zuen eta hausten baldin bazen, katastrofe iragarria zen denentzat. Gaur egungo bost mila euroko balioa zuten errotarriek eta jende franko aberasten zen lan gogor horrek ekartzen zituen eskubide, tasa, eta gainerako herri, eskualde eta errege zergak zirela medio. Ekonomia oso baten ardatza zen. Pikutara joan zenean, duela bi mende edo, horko harri-pikatzaile zohituek sortzen ari ziren fabriken bidea hartu zuten.

Mendiaren begirunea handia zen, gure hausnarrak bideratzea lortzen zuelako. Inlandsisetatik, taiga eta tundretan zehar, estepa eta desertu idorretaraino, ume-ontzi bero eta heze baten moduan, bizia baimentzen zigun zabalera genuen inguruan. Andatzak, euri egun errepikatuen ondotik, hosto peetan, oihan tropikala zirudien, halako usaina zuen, bere baitako abere, txori, marmutxa eta lur azpiko herrestari kurruskari oldeak gerizatzen zituela. Munduan barna, ehun eta berrogeita hamar milioi autoktonok oihanetan ziharduten, lurreko bioaniztasunaren zati handienari babesa emanez. XX mendean, planetako oihanen erdiak suntsitu zituen gizakiaren diru falangaren eraginak.

Nire burutazioak irakurri al zituen Nadiak? Begiak ez zituen harrizkoak. Sentimenduak noizbait aitortuko zizkidala sinesten nuen. Instant hartan, horretara zihoala uste nuen. Entzumena zorroztu nuen.

-Jaitsi beharko genuke ez?

-Denbora badugu Nadia. Argi zirrinta miretsi nahiko nuke zurekin.

-Zure erromantizismoak galduko zaitu.

Karkara mikatz batez askatu nintzen. Ez zen adierazpen eztiaren ordua. Bata bestearen sorbaldetan bermatuz, Andatza kaskoko etxolaren aska hertsitik altxatu eta ezkerretara lerratzen zen xendratik abiatu ginen maldan behera. Ez genuen frontalen premiarik. Ilunari ohituak ginen eta aski ongi ikusten genuen. Bidearen ertzean, trikuharri bat agertu zitzaigun, borobilean lurrean hedatu harriz osatua. Gelditu ginen. Bakoitzak gure aldetik, han edo hemen, arbaso lerroak berdegune nasai horretan ehortzi zirela pentsatu genuen.

-Beharbada zure etxera etorriko naiz goiz honetan.

-Zer diozu?

-Entzun duzuna.

Nire aldera bildu nuen, gorputz biak zoko-moko sinetsezinetan kokatu arte, horretarako egokitu moldeak bailiran. Musua eman nion, luzea, beroa, mihiak gurutzatzeraino. Nadiaren ahoko tua enarekin nahasi zen, atsegin hitzemanaren alkimia bitxiaren gostua txertatuz. Seinalea zen. Ezin ukatua. Gure laugarren gauaren amaieran ohe berean etzango ginen, hondarrean, azkenean, berantetsia nuen.

Beldur nintzen ordea, Nadiaren proposamena ez ote zen nire garun sotilak sortzen zekien ikuskari bat gehiago.

-Hor dugu Igartza Zabal baserria.

-Bukatuko da gure bidaia.

Erdi-lasterka, hatsa neurtuz, Urdaiaga auzoraino segitu genuen. So konplize batez troxatu nuen San Esteban elizako dorrea, zeinu-kolpeek Santueneko ene gauak bihikatzen zituztelako. Usurbil hor sortu zen, errioa beilatzen zuen munoaren gainean. Biloak oihal zapi koloretsuz gordeak zituen emazte gazte batek deitu gintuen, arren haren hatzetatik ernatzeko, zerbait erakutsi behar zigula.

Bihurgunez bihurgune leku berezi batera gidatu gintuen. Hogeita hamar bat andere zeuden, beltzez apainduak, apalik kantari, makinaren hots arinek neurria jartzen zietela. Arboleak, parez par, korroskatzen zituzten horma gorakoiak, iratze, gorosti, belar alfer eta zuhaixkak ageri ziren denetan, mahaiak, ubideak eta zuntzak pilotetan bilbatzeko lanean ari ziren emakumeak emokatuz. Gure gidak ahoa ireki zuen:

-Ongi etorri Erroizpeko olara!

-Zer da hau?

-Zeta haria ekoizten genuen hemen... XIX mende bukaeran. Bazauzue? Emazteok igotzen ginen lerroan, goizero, Kalezarretik, Txikiardetik, Aginagatik, Elizaldetik, Santuenetik, Txokoaldetik, Zubietatik, haurrak amekin utzirik ... zaila zen baina harro geunden, garai hartan, zeta ola hau puntako industria zelako. Berritasuna. Ez zuen iraun, zorigaitzez...

Betiko istorioa zela ihardestera nindoan, anderearen irudia linboetan urtu zenean. Ohitua nintzen. Egiaz, Usurbilera etorriz geroztik, ene borondatetik kanpo, iragana orainarekin ezkontzen zitzaidan. Lekuko jende eta kontakizun jalkinak metatzen ziren, izpirituak astinduz. Hizlaria desagertu baiko, zeta-ola ohi erraldoiaren murrak zutundu ziren, hezetasun aztarna sarkorrak, idatzi gabeko jende xeheen memoriak, intziriak, negarrak eta emakumeen artean, menderen mendeetan, banatutako irriak gatibatuz. Lertxundiren Orbaizetako olaren hitzak eta melodia baliatuz ekin nion xuxurlari, hunkitua,

Erroizpeko zeta olaren

Horma zarrak...

Eta pianoaren soinuak nire garun akitua harrapatu zuen, bustitasun mistiko uholdeak eramaten ninduela balizko etorkizunaren zurrunbiloan bihurrikatu oroitzapen eta amodio istorio ahituetan hara.

Nadia konturatu zen ametsaren magalean haurtzen nindoala. Sorbalda jo zidan, iratzar eta lekuak zein denborak juntatzen ziren gune lanjeros haien uberetatik atera nendin, nehor ez baitzen abesti ezagun hartako eguneroko bakartasunetik salbatzen.

Oihanaren beso arte amoltsutik jalgi ginen. Zapatak lokatz genituen, estalkiak ihintzez blai, behatz puntak minbera, begiradak aldiz isiotuak, altxatzen ari zen goiz berria erretzeko gai. Plazer

bekaitzaz hantzen ari nintzen ni gainera, Nadia etxera etorriko zelako Santuenera heldu bezain laster. Esperantza birla potoloa lehertu zitzaidan bihotzaren aldean eta zeruaren erdian sutzen zihoan lehen eguzki arraioari beha egon nintzaion, zorionsu:

-Bazter ditzagun penak, xangrinak, dolamenak eta haserreak... Mundu berria eraiki dezagun. Zuk eta nik. Mundu horren partaide bilaka gaitezen, pentsatzen duguna errateko beldurrik gabe, gureak eta asto beltzarenak entzuteko gai izanez, gogaide nor dugun ikusteko eta ikasteko beta hartuz, konfiantza landuz...

-Laburtuz... elkar maitez erran nahiko duzu...

-Horixe.

Nadiarekin harilkatu gauek beratu ninduten, aberastu, ondu, Oria erreka ezpondetako ezinbesteko lur umelaren gisa. Tokiak eta tokien izenak eder zitzaizkidan, bertako biztanleak halaber, hunki, zauri eta suntsiezinak. Nirekin zihoan emaztea are premiatsuagoa kausitzen nuen, laster etxean nukeen, ganbararen sekretuan, zetorkigun azkorriaz besta eginez. Ura zela ziruditan, harria zela, ibaia zela, mugarririk gabeko lurraldea, sentimenduen biribilean birrinduko ninduen errotarria.

Urdaiatatik Santuenera jaitsi ginen. Tangerrera. Hitzik gabe. Auzoko oilarrak oro iratzarriak ziren, kukurruku eta kukurruka. Laino mihi bat sartzen zebilen itsaso aldetik, Oria ibaiaren meandroak eta Aginaga-mendiko mazelak estaliz. Baldintzarik gabeko bizitza-goseari deika altxatzen zen samurtasun handiko goiza zen.

Azken har mailak beherantz. Ber-sortzen ari ginen. Argitasunak txundituak. Itsutzear. Nadiaren sakelakoaren soinua oihartu zen orduan. Hormatu nintzen. Jotzen utzi zuen. Lau, bost, sei.

-Har ezazu, arren!

-Aspertuko da. Ez nago nehorrentzat.

-Intsistitzen du.

Joaldiek zainetan jartzen ninduten. Dei garrantzitsua zitekeen. Nadiaren ama edo bere lagunak bat. Ekiari eskaini zizkion betazal ubelduak.

-Egun berriaren sua sentitzen dut. Erreko nau. Erreko gaitu. Pertsona ezberdina naiz. Handitu naizela dirudit. Bidea nerauk egiten ikasi banu bezala. Noranahi joan naiteke orain.

-Goazen etxera!

Eta telefonoaren karranka ozendu zen berriro. Botoi berdea bultzatu zuen deia onartzeko. Lehen hitzetik beretik banekien ene ametsaldia bukatu zela:

-Aitor?

Nadiaren senargaia zen. Emakumearen matelan atsegin txortolak isuri ziren. Egoera sentimentala onera ari zitzaion. Zirkulua ixten bailitzan. Dei soil bati esker, minak, penak, zauriak, denak ezeztatuak ziren. Aitorren itzulera espero zuen, eta irudiz, Aitor hor zen, urrutizkinaren beste puntan.

-Usurbilgo Eusko Tren geltokian igurikatzen nau. Bidaia segituko dugu. Lagunduko nauzu haraino? Barkatu, esperantza faltsuak hazi baldin ba dizkizut... Joan beharra daukat.

-Zoaz ni gabe...

-Zato geltokiraino, nirekin.

Gogoz kontra ihardetsi nion Nadiaren deiari. Burdin bidea gurutzatu genuen. Nadia lasterka zihoan Aitorrengana. Gizon beltzaran bat hurbildu zitzaion. Trena etorri zen. Ez nuen astirik ukan kaira iritsi eta Nadiaren agurtzeko.

Argi gorri bi urtu ziren Santueneko erriberako tunelaren iluntasunean. Galdu nuen Nadia. Aitorren eta nire arteko hautua erraz egin zuen. Agudo. Bere gizonarekiko maitasunaren menpe zegoen, gatibu. Eta ez zuten Usurbileko lau gau zuriek egoera aldatu.

Santuenera bueltatzean, Ingemar fabrika ohiko altzairuzko eta burdinazko montadura zintzilikariak balantzaka ari ziren haize arinarekin. Errauts zutabe burbuila bat altxatu zen, harri puskek eta plastikozko hodi metatuek lurtean osatzen zuten borobil perfektuaren erditik.

*

Nadiak aldegin zuen unean bertan hasi nintzen, ohe hutsaren hegian kuzkurtua, lau gauetz bizi izan genuena paperrean etzaten. Erraietatik jazartzen ziren hitzen kalipu basatia nabaritzen nuen, idatzi, idatzi, idatzi ordenak mailuka aditzen nituela. Automata baten antzera aritu nintzen, ordenagailuko teklak, zanpa eta zanpa. Ez nuen deus ahantzi nahi. Usurbil haluzinatu eta habitatu bat zeharkatu genuen, ez jakin zer hauta ilunbearen eta goiz zirrintaren artean, gauaren eta egunaren artean, bihotzaren eta buruaren artean, guztia genuen desio, eternitatea bera eta instanterik efimeroena.

Bititza bi mailatan hedatzen zela ondorioztatzen nuen Nadiarekin gozatu egun eta gauetan. Batetik, errealtatea, palpablea, fisikoki hazta zitekeena eta bestetik, agerindeen edo begitazioen mantala, eta hor immaterialitatea zen nagusi, aurpegiak, gorputzak, ahotsak etortzen ziren garunak harrotzera, eta kontatzen zenaz besteko errealtatearen zati erreala gorik ez zegoen. Orainalditik etorkizunerako arrakala, aurpegi, gorputz eta ahots horiek elikatzen zuten, bereziki gauetz, bereziki gureak izan gabe, hain gureak ere ziren Usurbilen trakako hirietan.

Biharamun arrastirian, Mikel Laboa plazan nintzen berriz, puntual. Zer gerta ere. Zumetaren zeramika erraldoiko elementuak eki arrasarekin jostari zebiltzan. Txirristra ostatuko terrazan juntatu herritarrak goraki mintzo ziren, irri karkarak eta txiste gordinak tartekatuz. Karobi, Hartzabal edo Bordatxotik zetozen, taldean, dema-plazako aizolbeetan galtzeko, gauaren bururaino. Horrela bizi zen jendea Usurbilen, multzotan, adinekoak, helduak, haurrak, soka humano trinkoak moldatuz, lagun protsimoari kasu eginez. Destino anitzak eta esperientzia ezberdinak bertan errotzen eta bilbatzen ziren, istorio honen bertsio koloretsuak papereratzearren.

Usurbil pausa eta hausnar tokia bide zen. Aldi berean bere nortasunaz harro eta eguneroko ahultasun ikaragarriaz kontziente. Lehen eta orain. Nadiak gidoia errepikatu zuen. Baina Aitorrekin joan zen. Ametsa zen niretzat. Edo amets gaiztoa. Gozatutako gauak nola izendatu ez nekien. Muga gabetasun hori gustatzen zitzaidan. Emazte desiragarriaren konpainian asko ikasi nuen, mundua harilkatuz negar eta irri egin genuen batera, iragan denboretako zauriak gantzaz eztitu genituen, solasaren hariak oihal gerizak bailiran irunez eta etorkizunerako urratsak asmatzen saiatuz. Usurbileko sentitzen nintzen, batzuetan Elizaldeko, besteetan Aginagako, gehienetan Santueneko. Maite nuen zubia pasatzea, eta Usurbili bizkarra emanez bititza gauetz bederen.

Ondoko egunean, bulegoan iltzatuta, pantailaren aitzinean, bost orrialde beltzatu nituen. Sekula ez nuen horrelako izkiriartzeko tirriarik jasan. Nadiarekin dastatu segundoen hamarrenak ere gatibatzeko tentazioa neukan, keinu, ele edo begirada bederak sekulako aztarna utzi zuelako ene baitan. Mundua higatu zen gure oinetan. Mundualdiko kide guztiekin batera. Nadia eta bion artean garaturiko zoramen horren inguru-giroa osatzen zuen Usurbilek, dekoratu izugarria, alaia eta zabala, tematsua eta bere

libertateaz bekaitz, bere itzal argiekin. Herri perfektua zen. Baina, aita zenak zioenez, norberak bere gurutzea eraman behar zuen, auzoarena gutzizatu eta idealizatu gabe. Ez dakit arrazoi zuenez.

Adiskidantzak, maitasun istorioak edo harremanak bukatzen zirenean, ordulariak zerotan jartzea komeni zitzaigun, balizko bide berriak irekitzeko apailatzeko. Izakiok horrelakoxeak ginen. Bihoztunak. Burugabeak. Nadiak, beste behin, frogatzen zidan, ez nuela indarrik aski jaidura zital horren gaitzitzeko. Zuzendu eta senda-ezina nintzen.

Hondarrean, Usurbilen eta inguruetan, denek zepo berean bukatzen zuten, malkoak idortu baiko, damurik gabe kantari eta dantzari, neska eder eta deigarrien artean, hereneguneko Benta Zikin famatuan hain zuzen ere, hurrengo aztoramendu aldirako apustuak egiten.